


DIRU SARRERAK

Enpresa berri bat garenez, lehen diru-sarrerak partaideon ekarpena izango da. Bost partaide garenez bakoitzak 20000€ jarriko ditugu 100000€ lortuz, gainera bankuak emango digun maileguarekin diru gehiago lortuko dugu. Lokalari dagokionez, Tolosako erabili gabeko lokal batean jarriko dugu martxan gure txikiparkea, hasieran alkilatu egingo dugu, baina txikiparkea uste baino hobeto badabil erostea pentsatuko dugu. Tolosaldea enpresak, garatzen sailekoek, gure proiektua aurrera eramaten lagunduko digute eman dakizkigukendirulaguntzekin eta dagokion formazioarekin.



Tolosaldea
enpresak
garatzen



Gure enpresako diru-sarrera nagusiak gazteak zein umeak gure instalazioak erabiltzeagatik etorriko dira, txikiparkean sartzeko prezioa egokia eta poltsiko guztietatiko justua izango da. Esate baterako, txartelak 5€/orduko balioko ditu eta adinaren arabera ez da aldatuko, baina bai zerbitzuaren arabera. Gainera, guretzat errentagarriagoa izan dadin larunbata eta igandetan garestiago izango da, 7€/ordua adibidez.

Talde handian datozen bezeroak, eskolak adibidez, edota urtebetetzetako merendolak, gurekin prezioa negoziatu ahal izango dute. Deskonturen bat eginez edota zerbitzu berezia eskainiz.

Etorkizunean elektrizitatea eta gasaren prezioak igotzen jarraitzen badute, guk ere gure prezioak igo egin beharko ditugu. Azken finean, guk nahi ditugun prezioak jarriko ditugu, inguru honetan konpetentziarik ez daukagulako, baina beti gure bezeroengan pentsatuz.

Diru-sarrera gehiago lortzeko, publizitatea egiten saiatuko gara gure zonaldeko enprekin harremanetan jarriz. Horrez gain, edozein lasterketa edota kirol txapelketa dagoenean, bertako babesletako bat izateko asmoa dugu, txapelketako partaideak gu ezagutu gaitzaten eta horrela gure ospea handitu.